

6.a	1. EZAGUTZA-FITXA	INFORMAZIOAREN KOMUNIKAZIOA ETA KUDEAKETA Ordenagailua ezagutu	
-----	----------------------	---	---

EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :
Lan postu. Periferikoak	1 (« badakit »)	- Ingurumen informatiko baten oinarriko elementuak eta programak ezagutu.
Sarean egindako informazioaren bilaketa	2 (« badakit aipatzen »)	- Informazioak emandako URL helbide baten bidez aurkitu.
Programak	1 (« badakit »)	- Programak identifikatu.

Oinarri bateratua

4	Informatika lan ingurumena bereganatu	Esku pean diren biltegirako guneak erabili, kudeatu. Esku pean diren periferikoak erabili. Esku pean diren programak eta zerbitzuak erabili.
---	---------------------------------------	--

Oroit ! *Informatika da gai gehienetan erabiliko duzun lan-tresna. Bestalde, etxean ere halako tresna baliatuko duzu jostatzeko edo lan egiteko.*

1. ORDENAGAILUA


Tresna honen bidez lan frango egin daiteke :

- ✓ testuak idatzi eta moldatu, komunikatu,
- ✓ marraztu, modeloak egin, inprimatu,
- ✓ datu-taulak eraiki eta hauen bidez kalkuluak egin,
- ✓ emaitzak diagrama baten bidez adierazi
- ✓ makinak kontrolatu eta manatu, jostatu...

Ordenagailu guztiak **unitate zentral** batez (bere barnean **mikroprozesadorea**, kalkulagailua, edukiko du) eta hainbat **periferikoz** osatua da.


2. PERIFERIKOAK

Ordenagailuarekin lan batzuk egin nahi badira, harekin lotuak diren elementuak erabili beharko dira : **PERIFERIKOAK..** (kable baten bidez edo harririk gabeko konexioa erabiliz : Wi-Fi, Bluetooth)



Periferikoak bi multzotan banatzen dira : **sarrera periferikoak** (informazioak sartzeko) eta **irteera periferikoak** (informazioak ateratzeko)

- Teklatua sarrera periferiko bat da erabiltzaileak honen bidez informazioak bidaltzen dizkiolako unitate zentralari. Sail berean sartuko ditugu elementu hauek : sagua, eskanerra, taula grafikoa, kode barren irakurgailua, box delakoa...
- Monitorea (pantaila duen gailua) irteera periferiko bat da unitate zentralak informazioak bidaltzen dizkiolako. Hauek guziaz ere halako periferikoak dira : inprimagailua, box delakoa, bozgorailuak, makina-tresnak...



3. PROGRAMAK edo APLIKAZIOAK

Programak erabiliak dira ordenagailua ibilarazteko eta ordenagailuz hainbat gauza egiteko : baitezpadakoak dira informatikan.

Oinarrizkoa, **sistema eragilea** deituko da eta honi esker ordenagailua erabiliko duzu informatikan aditua izan gabe. Adibidez : **Windows** (10, 8, 7, Xp...), **Linux** (Ubuntu, Debian, Mandriva...) P.C. Ordenagailuentzat, **MacOs** Macintosh ordenagailuentzat.

Beharren arabera, erabiltzaileak programa bereziak erabiliko ditu, adibidez :

Testu-tratamendua	Testuetan oinarritutako dokumentuak egiteko, gehienetan irudi edo argazkiekin apainduak.
Kalkulu-orriak, diagrama-egileak	Taulak osatzeko, kalkulu automatikoak egiteko eta diagramak eraikitzeke.
Ordenagailuz lagundutako diseinua - fabrikazioa (C.F.A.O.)	(Conception - Fabrication Assistée par Ordinateur) pieza bat marrazteko eta haren fabrikazioa ordenagailuz manatzeko.
Komunikazio-programak	Internet, mezularitza elektronikoa, elkarrizketa...
Joko-programak	Denbora pasatzeko !

Programak babestuak dira "**copyrigh**" delakoaren bidez eta baimenik gabe hauek kopiatzea legez debekatua da, nun ez diren programa libreak, hots, haizu dela halako programak erabiltzea ordaindu gabe.

Adibidez, **LibreOffice** programak erabiliko ditugu kolegioan halakoak direlako. Zuk ere interneten bidez deskarga ditzakezu etxean erabiltzeko jakinez asko euskaratuak direla !